

Pentsatu, sentitu, ekin

Antton Izagirre

Goizeko zazpiak, erosketak egiteko kutxatilara noa. Kutxatilak eskatu diodan dirua igorri dit. Alboan, gaua han pasa duen etxegabea. Kartoi eta manta artean ez du gorputzik ageri. Ez buru, ez aurpegi, ez nortasunik, ez du ezer erakusten. Han geratu da lo. Gosaria hartzera hurbildu naiz kafetegira, irudi hura buruan kolpeka.

Egunkarietan, egun hotz batean, otordu bero bat hartzeko zain errefuxiatu ilara luzeak ageri dira. Egunak eta egunak pasa, hor jarraitzen dute. Irudi lotsagarriak. Iru-diak dira, estampa larriak. Irudiaren atzean gizakion duintasuna hankaperatua. Kalean gutxi hitz egiten ari da.

Bestetik, gure herrian guztion ahotan dabilta dendetako erakusleihoetan, propaganda sexista salatu asmoz, zenbaitek egin dituzten pintaketei buruzko iritziak. Alde edo kontra, iritziak bor-bor.

Zer da, beraz, gai bat nagusi egiten duena eta besteak ikusezin? Gaien larritasuna? Gertutasuna agian? Bitartekoak? Ala gaien gaineko juzkua eraikitzeke edo balioesteko erabiltzen ditugun zentzuen galbahea?

Zenbaitetan film bateko fikzioan sorturiko gertaera batek malkotan jarri gaitu, eta, aldiz, egunero errealitatean begi bistan ditugun gertaera larriek hotz eta indarge utzi izan gaituzte. Non datza indargunea?

Segur aski, edukia ez baina komunika-tzeko modua da mezua. Badira albiste batzuk arrazoiaren galbahetik pasaraz-ten ditugunak edota emozioen kordei dar-dar eginaraziz hunkitzen gaituzte-nak.

Eta ekintzarako bulkada nagusia, arra-zoiak ala emozioak eragiten du?

Hitzetatik ekintzetarako jauzian pen-tsatu eta sentitzeko gaitasunaz gain, Mi-kel eta Begok, Grezian, eta Bakearen Arti-sauek, Luhuson, azkenaldian gure gizartean lozorroan eta hankamotz ziruditen beste balioak erakutsi dizkigute: el-kartasuna eta konpromisoa. Pentsatu, sentitu eta ekin, bata bestearen osagai. •

Negarra ez dadila honengatik gehiago izan

Miren Azkarate

Kalera kalera borrokalari kalera, hire indarraren beharra diagu, gure indarrarekin batera». Horrelaxe dio abestiak. Amak kontatu dit bi urte nituenean manifestazio batean abesten ari zirela egin nuela lehen aldiz negar. Eta orduz geroztik entzuten dudan bakoitzean egin dudala. Badu zeozer, ez dakit zer...

Pasa den hilean maiz entzun dudan abestia da, Kalera Kalera dinamika dela eta; pentsa, beraz, zenbat negar egin dudan! Baina kasu honetan ez da abestiagatik bakarrik izan. Preso eta iheslari politiko ohiok aurrera eraman dugun ekimenak berak izugarri hunkitu nau, eta, une askotan, pozez eta tristuraz, malko batzuk isurarazi dizkit.

Kalera ateratzera erabaki genuen gurekin falta ditugun lagun eta kideak ere kalera

ateratzeko. Eta horretarako hainbat belau-nalditako pertsonak elkartu ginen, errealitate eta bizipen oso ezberdinetatik gentozenak, nahiz eta batek batzen gintuen... Hunkigarria! Aspaldi ikusi gabeko kideak, eta, lehen aldiz, Itziarrek semeak izateaz gain alabak ere izan dituen aldarri ozena. Momentu ahaztezina!

Asko dute esateko Usurbilgo gunek emandakoak eta hainbat herri eta auzotan antolaturiko ekimenek, baina zutabe hau ez da nahikoa horretarako. Dinamika abiatu eta astebetera Bilboko manifestazio erraldoia ikusi genuen. Beste urte batez milaka herritarrek eskaera bera egin eta, hau azkena izan dadin esperantzan, hotzari, euriari eta gainontzeko oztopoei aurre eginez buruz dakiten ibilbidea burutu zuten. Barruan

pasatako urteak eta bertan txikitatik bizi ditudanak nahastuta, hemen ere begiak bustita. Zergatik? Ez dakit azaltzen.

Baina hil honetan negar eginarazi didana, eta erruz gainera, Izarri, Sarari eta etxekoei gertatutakoa da. Ez naiz ur handitan sartuko, asko idatzi baita gaiaren inguruan eta dena esana dagoela iruditzen baitzait. Baina Sara kide izan nuen espetxean, eta laguna dut. Horren batura, egoera jasangaitza egiten zaidala. Beraz, eta bukatzeko, nire indar guztiak eta maitasun zakukada bat Izar, Sara eta senideei. Eta kalera kalera ez, ekarri ditzagun behingoz eta bizirik denak etxera!

Norbait pentsatzen has dadila «etxean daude» dioen kanta bat... Negar egiten jarraituko dut, baina pozez soilik. •